euskal itzultzaile,
zuzentzaile eta
interpreteen
elkartea

DONOSTIA 2016
SAN SEBASTIAN

# Shakespeareren *Uda gau bateko ametsa*ren euskarazko itzulpen berri bat sarean




2014ko abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Eguna dela-eta, William Shakespeareren *A Midsummer Night's Dream* komediaren euskarazko itzulpen bat jarri du sarean EIZIEk, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak. Hala eman zaio buru Donostia 2016k eta EIZIEk komedia horren inguruan antolatutako "Shakespeareren Ametsa biziarazten" programari.

Juan Garzia Garmendia da itzulpenaren egilea, bera aukeratu baitzuen Donostia 2016k lan hori egiteko. Itzulpena eta itzultze-prozesua bera gizarteratzeko, berriz, programa bat egin zuten Donostia 2016k eta EIZIEk, jendaurreko zenbait ekitaldik osatua. *Uda-gau bateko ametsa*ren argitalpen digital hau da, hain zuzen, programari buru ematen dion jarduera.

Zemoria 25 · E 20013 Donostia · +34 943 277 111 · bulegoa@eizie.org · www.eizie.org

**Beste bi *Amets* aitzindari**

Ez da Shakespeareren obra horren itzulpen bakarra. Aurrez, beste bi itzultzailek emana zuten euskaraz, Bingen Ametzagak eta Bedita Larrakoetxeak, joan den mendearen erdialdean. 2014ko azaroaren 20an izan genuen aukera Ametzaga eta Larrakoetxearen itzulpenen berri izateko, "Shakespeareren hiru *Amets*" izeneko ekitaldian. Eli Manterola EHUko irakaslea aritu zen Ametzagarenaz, eta Karlos del Olmo itzultzailea, berriz, Larrakoetxearenaz.

Bingen Ametzagak Shakespeareren lau antzerki-lan euskaratu zituen Amerikako erbestean, 40ko eta 50eko hamarkadetan: *Uda gau bateko ametsaz* gainera, *Macbeth, Hamlet* eta *Julius Caesar*. Orain artean, *Hamlet* baizik ez dago argitaratuta. Hain zuzen ere, Donostia 2016rekin egindako hitzarmenaren barruan, Bingen Ametzagaren *Uda gau bateko ametsa* paperean argitaratzeko asmoa du EIZIEk 2015an.

Bedita Larrakoetxeak, berriz, Shakespeareren antzerki-lan guztiak itzuli zituen, oso urte gutxian eta presaka itzuli ere. Euskara salbatzeko helburuz egin zuen hori, garai hartan lan unibertsalak euskarara ekartzea jotzen baitzen horretarako bide nagusitzat. Berak onartzen zuen askoz ere hobeto egin zitekeela, baina lehenbailehen argitaratzeari eman zion garrantzia.

Aitzindari haiek ikaragarrizko lana egin zuten, ez baitzuten oraingo baliabiderik. Ez da erraza gaurko egunetik imajinatzea zein zaila izan zitekeen hori garai hartan, euskara estandarrik ez zegoenean, internetik ez zegoenean, ez gaur egun ditugun hiztegi digitalak, ezta idazle zaharren obrak ere hain eskura… Itzultzaile haiena bai izan zela benetan bakarlana. Teknologiaz gainera, giro politikoak bakartuta, elkarrekin ia harremanik izateko aukerarik gabe jardun zuten, bakoitzak ahal zuen erara.

**Hirugarren *Ametsa***

Ametzagak eta Larrakoetxeak prosaz eman zituzten beren bertsioak, nahiz eta Shakespearek hitz neurtuetan idatzi komediaren parte asko eta asko, eta hitz neurtuetako gehienetan errima erabiliz gainera. Hain zuzen ere, esan daiteke obra hau dela, proportzioz, Shakespeareren lanen artean, bertso-lerro gehien duena. Eta desafio horri heldu nahi izan dio Juan Garziak bere itzulpenean: jatorrizkoan hitz neurtuetan dauden pasarteak hitz neurtuetan eman ditu berak, eta errima erabili du, gainera, autoreak

errima erabili duen kasuetan ere. Horretarako, jakina, euskal tradizioko neurri eta moduez baliatu da, eta ingeleseko 10-11 silabako bertso-lerroen ordez 15 silabakoak edota 18koak erabili ditu. Lehen neurria, Etxeparek berak gehien erabili zuen bertsokera da, 8/7 ataletan banatua, eta harrezkero beste idazle batzuek eta hainbat herri-kantak ere erabili dutena; bigarrena, berriz, 10/8 silabatan banatua, zortziko nagusiarena.

Juan Garziak ez du izan aitzindariek adina arazo euskara-eredua hautatzean. Oinarrizko estandarra, euskara batua alegia, egina baitago. Horrez gainera, irakurtzeko testu bat egin du. Bertso-lerroez gainera, prosazko zatiak ere estilo deklamatorioan itzuli ditu, ez prosa arruntean. Eta bertsotan eta errima erabiliz egiteari dagokionez, Garziak berak esandakoaren arabera, bertsotan idazteak ematen ditu erraztasunak ere, paradojikoa dirudien arren: hiperbatonak-eta naturalago erabil daitezke, eta, bestalde, erritmoak berak eraman egiten zaitu hein batean, eta erraztu egiten du entzutea. Bestalde, leialtasunari dagokionez, errazago barkatzen da kontakizunaren xehetasunetan hain leial ez izatea, garbi ikusten delako errima eta metrika mantentzeko egiten dela. Bera, hala ere, jatorrizkoan esaten direnak ahalik eta leialen ematen saiatu da.

Antzerki-lan honek, nahiz eta orain 400 urte idatzia izan, ametitzen du gaur egungo irakurketarik, Larraitz Ariznabarreta filologi eta shakespearezaleak programaren lehen saioan, Itzultzailearen Sukaldean (EHUko letren fakultatea, Gasteiz, irailaren 30a) aipatu zuenez. Obrak kanon berrietatik begiratu eta berrinterpretatzeko aukera ematen du nabarmen, eta gaur egungo teoria postmodernoetatik aztertzeko ere aberatsa da. Gizarte patriarkalaren kritikarako elementuak ditu, irakurketa ezin gaurkoagoak egin daitezke genero-ikuspegitik. Bide horiek ere jorratuko dira, beharbada, 2015. urteko programan.